

# LILIAK

2009ko udaberriko egun polit bat argitzen ari zen Altsasun. Herria esnatzen hasi zela nabaritzen zen kaleetan: haurrak klasera, helduak lanera, etxekoandreak eguneroko erosketak egitera, batzuk txakurra paseatzera...txoriak txiotxioka...denak pozik zebiltzan. Beno, den denak ez. Herri erdian udaletxea zegoen, eta udaletxe aurrean lorategi txiki bat. Lorategiko bazter batean bizi zen gure laguntzua, "San Jose" lore eder bat. Ederra bai, baino tristea ere bai. Nazkatuta zegoen bere bizitzarekin, egun guztiak berdina eta desaseginak zirelako: goiz goizetik etortzen zen txakur berdina txiza egitera beraren gainean, gizon dorpe batek egunero zapaltzen zuen, umeez baloiarekin jotzen zuten, eta gehien tristatzen zuena: inoiz ez zela eguzkipean egon. Hala ere, egun horretan bere zortea aldatu egingo zen. Bapatean gure lagunaren aurrean armiarma bat arnasestuka agertu zen:

- Kaixo loretxo, zure hostoen azpian ezkutatzea uzten badidazu fabore haundi bat egingo didazu. Barkatu Emi naiz.
- Kaixo Emi, ezkutatu lasai. Ni Josefina naiz, Fina lagunentzat. Baina zer gertatzen zaizu?
- Ba ni armiarma bidaiari bat naiz, atzo asko ibili nintzen baina ez nuen ezer jan. Gaur kiosko aurrean nengoenean, hor egunkariak eta abar saltzen dagoen mutilak gozoki batzuk jaten ari zela ikusi dut, orduan gozoki bat hartzea erabaki dut, baina mutilak ikusi nau eta iaia aldizkari batekin zapaldu nau. Orain nire bila egongo da.
- Hemen ez zaitu aurkituko. Barkatu Emi, esan duzu armiarma bidaiaria zarela, zurekin joan ahal naiz? Hemengo bizitza ez zait batere gustatzen.
- Ba zatoz nirekin nahi baduzu. Ni Urbasako magalera noa, lagun bat bisitatzen.
- Ados! Orduan zurekin joango naiz mundu berri bat ezagutzera.

Horrela Fina eta Emi elkarrekin egun osoa ibiltzen igaro zuten eta lagun onak egin ziren. Iluntzean Urbasako magalera heldu ziren. Oso nekatutak zeudelako berehala lokartu ziren zuhaitz baten azpian.

Hurrengo egunean eguzki izpi batek Fina esnatu zuen. Orain bai, pozik zegoen. Gainera bere laguna Emi bere ondoan zegoen. Eskubi aldera begiratzean eraikuntza misteriotsu bat ikusi zuen. Hari begira geratu zen harrituta.

- Egunon Fina!
- Egunon Emi! Zer da eraikuntza hori?
- Hori Altsasuko "Gaztelua" da.
- Altsasuko Gaztelua?

- Bai, horrela deitzen diote. Baina sekretu bat kontatuko dizut: nire amonak esan zidan denbora bidaiatzeko dorre bat dela.
- Bai zera! Egitan? Ba nik probatu nahi dut. Zer egin behar da?
- Nire amonak esan zidan barruan sartu behar dela gauetz. Han itxaron eta egunsentian eguzki izpi bat sartuko da ekialdeko zirrikitu batetik. Bere azpian jarri eta dena bueltaka hasiko da, zorabiatuko zara noski, baina beste aro batean esnatuko zara.
- Ah! Ze interesgarria! Gaur gauen sartuko naiz gaztelu barruan eta zortea probatuko dut!

Beraz, gure bi lagunek bere azken eguna elkarrekin igaro zuten. Gaur ailegatu zenean elkar agurtu zuten eta Fina gaztelu barruan sartu zen, goizeko lehen izpiak itxoiten. Urduri xamar zegoen baina barneko samin guztiak desagertu ziren, ausarta izan zelako bere bizitza aldatzerako.

Egun berri bat argitu zen. Eguzkitsua berriz. "Ongi goaz" pentsatu zuen Finak ekialdeko hormara begiratzen. Bai, hor zegoen izpi desiratua. Berehala bere azpian jarri zen. Ah, ze zorabioa! Eta dena iluna geratu zen.

Finak bapatean kilikadura bat nabaritu zuen, esnatu zen eta txakur sudur bat ikusi zuen bere aurrean.

- Argi! Zatoz! Non sartu zara? Argi! Ah, hor zaude! Zer ari zara begiratzen? Oooh! Ze lore ederra! Ze usain zoragarria! Ummm!

Orduan Finak bi sudur zeuzkan bere aurrean, bat txakurrarena eta beste bat neska gazte batena, txakurraren jabea. Biek begiratzen zuten aurpegi bihurri eta alai batekin. Azkenean Fina ausartu zen bi miresleak agurtzera:

- Kaixo, Fina naiz. "San Jose" lore bat naiz. Faborez, esango al didazue non eta zein urtetan gauden?
- Ai ama! Erotuta nago! Loreari entzun diot! Ezinezkoa da!
- Lasai, lasai, ez zaude erotuta, lore berezia bait naiz.
- Demontre! Ze miraria! Gainera oso polita zara. Lehen nire izena esango dizut, Mari Lili deitzen naiz. Sorozarretan gaude, Altsasuko dermio bat da. 1239ko udaberrian gaude, beno, iaia udan, bihar udako solstizioa delako, egun garrantzitsu bat guretzat, horregatik gauean jai bat egingo dugu ospatzeko. Nahi baduzu bihar gauean nirekin etorri?
- Ados! Ideia ona iruditzen zait, ez dakit nola eskertu. Barkatu, Mari Lili, beste galdera, zer erameten duzu saski hontan?
- Ah! Hemen daukat gaur bildu ditudan landare guztiak. Agian ez dakizu baina egun hauetan biltzen dituzun landareek propietate magikoak daukate. Gero botikak eta ukenduak egiten ditut beraiekin eta oso onak dira gaixotasunak sendatzeko.

- Ba oraintxe bertan ideia bat burutara etorri zait: zuk biharko jaia ikustera erameten nauzu eta nik esker on moduan uzten dizut ni erabiltzea zure ukenduak egiteko.
- Mila esker! Ukendua zoragarria aterako zait zurekin, gainera horrela denbora gehiago egongo gara elkarrekin eta gaixotasunak sendatuko dituzu. Bihotzez eskertzen dizut.

Eta horrela gertatu zen. Udako solstizioaren gaua ailegatu zenean Mari Lili Sorozarretara joan zen gurdi batean Finaren bila, eta Olaztiko mendira joan ziren, Orobeko kobazulora.

Kobazulo barruan jende pila bat zegoen, denak alai. Ikusteko olio argizariak zeuden, ke beltza botatzen. Kobazulo erdian su bat zegoen eta Mari Lili hara joan zen. Bapatean jendez inguratuta geratu zen. Denek agurtzen zuten belaunikatuz, eta eskuarekin bere gona ukituz. Gainera eskaintzak eta opariak uzten zuten bere ondoan: saskiak intxaurrez eta sagarrez betetak, arraultzak, oilaskoak... Orduan Finak ohartu zuen Mari Lili asanbladaren andereñoa zela, gure jainkosaren, gure Mariren, ordezkaria! Fina harrিতuta eta pozik zegoen aldi berean. Hau bai interesgarria!

Beste iskinean aker bat zegoen soka batekin lotuta. Denok dakigun bezala akerra Mariren animalia faboritoena da, eta ikuilu barruan abereen gaixotasunak ekiditzen ditu.

Musikariak ere bazeuden musika jotzen. Orduan jendea Mari Lili inguruan jarri zen, zirkulo bat osatzen, eta dantzatzen hasi ziren.

Denek edaten zuten edari berde bat eta neska gazte batek Finari pixka bat eman zion dastatzeko. Bapatean Finari hegan egiten zuela iruditu zitzaion. Hau bai gau ederra!

Hurrengo egunean, adostu zuten bezala, Mari Lili ukendua egin zuen eta bere belarren artean Fina sartu zuen. Ukendu miragarri bat atera zitzaion eta gaixotasun asko sendatu zituen.

Horrela gure laguntxoak, Finak, hasieran bizitza triste eta iluna zeukana, oso alaia izaten bukatu zuen eta jende asko lagundu zuen.

**Egilea:** Vannesa Galbete Rodriguez